

## BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

2178

*EBAZPENA, 2020ko apirilaren 24koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko arte-galeriei 2020. urtean nazioarte mailako arte azoketan stand-ak alokatzeko dirulaguntzak emateko Zuzendaritza Kontseiluak onartutako deialdia argitaratzeko dena.*

Etxepare Euskal Institutua (EEI, aurrerantzean) Sortzeko eta Arautzeko 3/2007 Legearen 3.b) letrak ondoko helburua xedatzen du aipatutako EEIrentzat: «Euskal Kultura bere hizkuntza ofiziale-tako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adiera-moldetan kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta hedatuz».

Bestalde, EEIren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak xedatzen du Institutu horren eskumenekoa dela Euskal Kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea eta hedatzea. Dekretu horrek bere 19. artikulua 2. atalean dio Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko arloak musika, arte eszenikoak, ikusizko arteak, zinea, arkitektura eta diseinua hartzen dituela bere baitan. Bestalde, artikulua horren f) zatiak EEIren funtzioen artean aipatzen du euskal sorkuntza nazioartean ezagutzera emateko kultura-eragileei laguntzeko programak diseinatzea.

Hori dela eta, EEIri jarduteko arlo gisa adierazi zaizkion eskumenen barruan, interesgarritzat jo da arte plastiko eta ikusizkoen inguruan antolatzen diren merkatu izaerako nazioarteko azoketan parte hartzeko dirulaguntzak emateko modua arautzea.

Dirulaguntza programa hau, hori emateko oinarrizko irizpideekin batera, Zuzendaritza Kontseiluak onartu zuen 2020ko martxoaren 24an, eta Kultura eta dirulaguntza hau Hizkuntza Politika Saileko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barnean dago. Plan estrategikoa Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko urtarrilaren 31ko Aginduaren bidez onartu da 2018-2020 urteetarako eta Sailaren web orrian argitaratu da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurklaritza/-/sail-plana/sailaren-dirulaguntzen-plan-estrategikoa-2018-2020/>).

Ondorioz, hauxe

### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da, Euskal Autonomia Erkidegoko arte-galeriek, euskal artisten lana bultzatzeko, 2020an zehar nazioarte mailako arte azoketan stand-ak alokatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzen duen Zuzendaritza Kontseiluaren akordioa argitaratzea.

2.– artikulua.– Diru-baliabideak.

Deialdi honetarako gehieneko zenbateko orokorra berrogeita bat mila (41.000) eurokoa izango da.

3. artikulua.– Onuradunak.

Ebazpen honek araututako dirulaguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean izatea.

– Errolda (pertsona fisikoen kasuan) edota egoitza soziala (pertsona juridiko pribatuen kasuan) Euskal Autonomia Erkidegoan izatea. Pertsona fisikoek errolda agiriaren bitartez frogatuko dute betebeharrak hori, eta pertsona juridikoek dagokion agiriaren bitartez.

– Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako alta izatea jarduera ekonomikoetarako zergaren baitan, arte-lanen salerosketaren jarduerari dagokion epigrafean.

– Dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzea galarazten dion zigor penalik edo administratiborik ez izatea.

– Legez debekatuta ez izatea laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea, berariaz aipatuta sexu-bazterkeriagatik ezarritako zehapenak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek ezaugarri bereko laguntza edo dirulaguntza batzuk eman badizkiote eta horiek itzultzeko edo zigorren bat ezartzeko prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura bukatu arte ezingo da dirulaguntza eman eta, hala dagokionean, ordaindu. Era berean, dirulaguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da jasotako dirulaguntza itzultzea, itzulketa-prozedura bat amaitzean ebazpen bat eman bada.

– Halaber, aplikagarria izango da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 11, 13.2 eta 13.3 artikuluetan eta horren garapen araudian, izaera orokorrarekin aurreikusitakoa.

– Baldintza guzti horiek, onuradun izateko ezezik, jasotako dirulaguntzaren kitapena eman arte bete beharko dira.

4. artikulua.– Erakunde edo pertsona eskatzailearen betekizun jakin batzuk egiaztatzea.

1.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulurekin bat etorriz, interesdunak eskubidea dute ez aurkezteko Administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein Administrazio egindakoak diren eskatutako agiriak. Horrela, haien kontsulta eta ateratzea Administrazioak egin ahal izango du, interesdunuak aurka egin ezean. Kasu horretan, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu.

2.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuarekin bat eginez, betebeharrak hauek egiaztatuko dira, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen bidez:

– Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso direla adierazi beharko da, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

– Egungo zerga-ekitaldian eta aurreko bi zerga-ekitaldietan eskatutako eta, hala badagokio, jasotako beste «de minimis» laguntzak jakinaraztea.

– Eskatzaileak ez izatea zigor administratibo edo penalik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

Halaber, eskatzaileak honakoak adieraziko ditu eskabidean: dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela.

3.– Eskabidea beste pertsona baten izenean egiten denean, legezko ordezkariaren identitatea eta daukan legezko ordezkariaren ahalmenaren egiaztapenak aurkeztu beharko dira.

4.– Halaber, erakutsiko diren euskal sortzaileen obrak jasotzen diren zerrenda bidali beharko da.

5. artikulua.– Dirulaguntzak kudeatuko dituen organoa.

Etxepare Euskal Institutuko Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko Arloari dagokio deialdi honen bidez emango diren dirulaguntzak kudeatzea.

EEIk proiektuen garapenaren jarraipena egingo du, eta onuraduna behartua egongo da horretarako eskatutako ikuskapen- edo informazio-eskaerei erantzutera.

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epeak.

1.– Deialdi honen 9.1.a) artikuluan aipatzen den ARCO azokarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAAn argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Ebazpen honen 9.1.b) eta 9.1.c) artikuluetan aipatzen diren azoketan parte hartzeko, 2020ko irailaren 2ra arte. Eskabideak deialdi hau EHAAAn argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira.

7.– Artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua.

1.– Pertsona fisikoek eskabideak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahalko dituzte.

– Aurrez aurre: eskabidea helbide honetan aurkeztuta: Etxepare Euskal Institutua, Tabakalera eraikina, Andre Zigarrogileak plaza 1, 3. solairua, 20012 Donostia, goizeko 08:30etik 14:00etara. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

– Bide elektronikoa: eskabideak aurkeztu ahalko dira, euskadi.eus gunean artikuluko honetako 3. atalean adierazitako helbidean.

Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiliz gero –presentziala edo elektronikoa–, horrek ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoz aldatu daiteke bidea.

Aurrez aurreko eskabideak aurkezteko aurretiazko hitzordua eskatu beharko da.

2.– Pertsona juridikoek eskabideak bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dituzte, artikuluko honetako 3. atalean adierazitako helbidean.

3.– Eskabideak nola tramitatu aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak azaltzen dituzten argibideak euskadi.eus-en honako egoitza elektronikoa daude ikusgai:

ARCO: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1032207](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1032207)

Beste azokak: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1032208](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1032208)

Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke: <https://www.euskadi.eus//nirekarpeta>

4.– Eskatzaileek euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak zein atxikitako agiriak. Halaber, eskabidearen ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeraturako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5.– Identifikazio elektronikorako, onartutako eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dagoen bitarteko elektronikoren bat izan beharko du eskatzaileak.

6.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

7.– Azoka bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko da. Eskatzaile batek eskabide bat baino gehiago aurkezten baditu, nahikoa izango da administrazio-dokumentazioa behin aurkeztea.

8. artikulua.– Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Etxepare Euskal Institutuak ikusten badu eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela, aurretiazko ebazpen bidez.

9. artikulua.– Dirulaguntzak emateko modua, beren zenbatekoa eta mugak.

1.– Deialdi honen bidetik emango diren laguntzak jarraian zehaztuko diren azoketara joanez gero stand-aren alokairu gastuen arabera zehaztuko dira, eta bakarrik horien finantzaketarako erabili ahal izango dira. Ezin izango da diruz laguntzeko moduko gastutzat hartu BEZaren zenbateko kengarria, dirulaguntzaren onuradunak zerga horren aitortpena egin beharra duenean.

a) Nazioarteko ARCO azokan parte hartzeko (Madril, Espainia), gehienez ere, hamasei mila (16.000) euroko kopuru osoa bideratuko da.

Galeria bakoitzeko emango den diru-kopurua stand-aren alokairurako kostuaren ehuneko ehuna izango da (% 100), betiere zortzi mila euroko (8.000) kopuru maximoa gainditu gabe.

b) Espainiako Estatutik at antolatzen diren eta jarraian zerrendatzen diren nazioarteko azoketan parte hartzeko dirulaguntzetarako: hogeita bost mila (25.000) euro gehienez ere.

– Ameriketako azokak: Art Chicago (Chicago, AEB), Art Basel (Miami, AEB), The Armory Show (New York, AEB), Zona MACO (Mexiko Hiria), SP-Arte (Sao Paulo, Brasil) eta ARTBO (Bogota, Kolonbia).

– Europako azokak: Art Basel (Basilea, Suitza), FIAC (Paris, Frantzia), Art Cologne (Kolonbia, Alemania), ARTISSIMA (Turin, Italia), Frieze Art Fair (Londres, Erresuma Batua), Paris Photo (Paris, Frantzia) eta MIA Milan Image Art Fair (Milan, Italia).

Azoka eta galeria bakoitzeko emango den diru-kopurua stand-aren alokairuaren kostuaren ehuneko ehuna izango da (% 100), baina diru-kopuru hori gehienez ere hamar mila (10.000) eurokoa izango da Ameriketako azoken kasuan eta zortzi mila (8.000) eurokoa Europako azokenean.

c) Aurreko letran aipatzen ez diren beste nazioarteko arte-azoketan parte hartzeko dirulaguntzak a) eta b) letretako diru-kopuruak agortzen ez badira bakarrik emango dira.

Azoka eta galeria bakoitzeko emango den diru-kopurua stand-aren alokairuaren kostuaren ehuneko ehuna izango da (% 100), betiere lau mila euroko (4.000) kopuru maximoa gainditu gabe.

2.– Multzoko bateko gehieneko kopuruak ezingo balie aurre egin, aurreko atalean jasotako baldintzetan, taldeko eskatzaile guztiei, horien guztien artean banatuko litzateke kopurua, eskatzaile bakoitzaren stand-aren alokairurako kostuen proportzioan.

Halaber, eskabide ezagatik edo hauek baldintzak ez betetzeagatik, nazioarteko Arco azokan parte hartzeko ezarritako diru-kopurua ahitzen ez den kasuan, diru hori 1.b) letran aipatzen diren Estatutik at antolatzen diren nazioarteko azoketan parte hartzeko ezarri den kopurua handitzera pasa liteke. Halaber, arrazoi beragatik 1.a) eta 1.b) letratan esleitu ez diren diru-kopuruak 1.c) letrako eskabideen artean esleituko dira. Aldaketa hori, eskabide hauen gaineko erabakia hartu aurretik egin beharko da, eta, horretarako, EEIko zuzendariak ebazpena emango du.

3.– Eskatzaile berak azoka guztietarako jasotako dirulaguntzen batura ez da inoiz hogeita lau mila (24.000) euro baino handiagoa izango.

10. artikulua.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandakoeekin, betiere gain-finantzaketa gertatzen ez bada. Gain-finantzaketarik balego, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Dirulaguntzak esleitzeko prozedura konkurtso gabeko konkurrentzia izango da, eta EEIko Euskal kultura Sustatzeko eta Hedatzeko arloari dagokio dirulaguntza lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea eta eman beharreko laguntza kalkulatzeko, EEIren zuzendariak dagokion ebazpena eman dezan.

a) ARCO azokarako esleipen-ebazpena eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik gehienez bi hilabeteko epean emango da.

b) Gainerako azoketarako, esleipen-ebazpena eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik gehienez hilabeteko epean emango da.

2.– Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren iragarki taula elektronikoan argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulurekin bat etorritik.

3.– Ebazteko epea inolako jakinarazpenik gabe igarotzen bada, eskabidea ez onartutzat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikulurekin bat etorritik.

12. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren iragarki-aula elektronikoan argitaratzen den egunetik aurrera hamabost eguneko epean onuradunak berariaz uko egiten ez badio, dirulaguntza onartu egin dela ulertuko da.

2.– Dirulaguntza adierazitako helburu zehatzerako erabiltzea, eta diruz lagundutako jarduera 2020. urtean burutzea.

3.– Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa ematea, hala eskatuz gero.

4.– Esleipen-ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera, EEIren babesa jaso dutela berariaz eta argi adieraztea katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen diren gainerako material grafiko zein soinudunetan. Nolanahi ere, dirulaguntza esleitzuz eman beharreko ebazpena eman aurretik gauzatutako egitasmoak betebeharrak hori betetzetik kanpo egongo dira.

5.– Ebazpena eman aurretik eskabidean aurkeztutako proiektuan aldaketaren bat egonez gero, horren berri idatziz edo «nirekudeaketak» helbidearen bitartez -izapide elektronikoaren kasuan- jakinaraztea EEIri. Berri hori jasotzen duenetik, EEIk 15 egun balioduneko epea izango du erantzuteko. Erantzunik ez bada, aldaketa onartutzat joko da.

6.– Onuradunak diruz lagundutako proiektuarekin lotutako materiala eta irudiak erabili ahal izateko baimena bermatzea EEIri, horrek informazioa hainbat euskarritan zabal dezan.

7.– Halaber, aplikagarria izango da dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan eta haren garapen araudian, izaera orokorarekin aurreikusitakoa.

13. artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa.

Ebazpen bidez esleitutako dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez gauzatuko da, jarduera amaitu eta behar bezala justifikatu ondoren.

Dirulaguntzaren zenbatekoari kendu egingo zaizkio, indarreko zerga araudiaren baitan dagozkion atxikipen eta konturako ordainketak.

Kasua bada, jarduera hasteagatik aplikagarria den atxikipena, onuradunak eskatu beharko du. Eskabide hori 12.1 artikulua dirulaguntza onartzeko ezartzen duen 15 eguneko epean aurkeztu behar da.

14. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

Jasotako dirulaguntzaren justifikazioa egiteko epea 2020ko abenduaren 31n amaituko da. Jarduera abenduan bada, 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen egin beharko da.

1.– Pertsona fisikoek justifikazioak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahalko dituzte:

– Aurrez aurre aurkeztu ahal izango dituzte honako helbide honetan: Etxepare Euskal Institutua, Tabakalera eraikina, Andre Zigarrogileak plaza 1, 3., 20012 Donostia, goizeko 08:30etik 14:00etara. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

– Justifikazioak bide elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahalko dituzte honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus//nirekarpeta>

2.– Pertsona juridikoek justifikazioak bide elektronikoa erabiliz aurkeztuko dituzte, aurretik adierazitako helbide elektronikoan.

3.– Justifikazioak, bai bide presentziala erabiliz bai bide elektronikoa erabiliz, nola tramitatu behar diren azaltzen dituzten argibideak euskadi.eus-en daude ikusgai, ebazpen honen 7.3 artikuluan adierazitako helbidean.

4.– Honako agiri hauek aurkeztuko dira justifikaziorako:

a) Burututako jarduera osoaren balorazio-memoria. Memoria horretan, diruz lagundutako arte azokan erakusgarri jarritako euskal sortzaileen obrak berariazko zerrenda batean jasoko dira, izan duten harreraren balorazioarekin batera.

b) Diruz lagundutako stand-aren alokairuaren fakturak.

c) Diruz lagundutako jarduera dela eta sortutako katalogo, programa, iragarpen-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuzkoaren ale bana, hala badagokio, EEIren logoarekin, laguntza jaso dela adierazita.

d) Eskabidea aurkeztu ondoren helburu berbererako jasotako bestelako dirulaguntzen zerrenda. EEIk emandakoaz gain beste dirulaguntzarik jaso ez bada, hori horrela dela adierazten duen erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko da, entitate onuraduna ordezkatzeko lege-ahalmena duenak izenpetua.

e) Halaber, aplikagarria izango da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. eta 31. artikuluetan eta haren garapen araudian, izaera orokorrarekin aurreikusitakoa.

15. artikulua.– Likidazio ebazpena.

Dirulaguntzaren justifikazioa behar bezala gauzatu ez bada, gain-finantzaketa izan bada edo, dena delako zioarengatik, dirulaguntzaren kopurua gutxitzea edo kentzea badagokio EEIko zuzendariak banakako likidazio-ebazpena emango du, proportzionaltasun printzipioaren baitan, egiaztagiria aurkezteko epea amaitu eta bi hilabeteko epean. Ebazpen horretan dirulaguntza itzultzea aginduko balitz, hau jasotzen denetik bi hilabeteko epea egongo da itzulketa egiteko.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Ebazpen honetan edo maila orokorragoko aginduetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

2.– Emandako dirulaguntza guztia edo zati bat ebazpen honetan aurreikusitako jarduera ez den besteren batean erabiltzea.

3.– Hala badagokio, dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean zehaztutako diru-kopurua ez itzultzea, horretarako emandako epean.

4.– Halakorik gertatu dela egiaztatzen bada, ez betetzea gertatuko dela ulertuko da, eta, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoari jarraikiz, pertsona edo entitate onuradunak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako diru-kopuruak eta horiei legez dagozkien interesak.

5.– Halaber, aplikagarria izango da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. eta 40.1 artikuluetan eta haren garapen araudian izaera orokorrarekin aurreikusitakoa.

## LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, 2. artikuluan ezarritako zenbateko osoa handitu ahal izango da, baldin eta EEIren beste dirulaguntza deialdi batzuk esleitu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideen gaineko ebazpena hartu aurretik egin beharko da. Adierazitako aldaketaren berri EEIren zuzendariaren ebazpenaren bidez eman beharko da, eta EHAAan argitaratuko da.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ebazpen honetan araututako dirulaguntzak Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan (EBAO, L 352 zk. 2013-12-24) adierazitakoaren arabera arautuko dira –erregelamendu hori Europako Batasunaren Funtzionamendurako Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da–. Dirulaguntza hauek minimis izaera dute, hau da, pertsona juridiko nahiz fisiko batek jasoko duen dirulaguntza osoa ez da 200.000 euro

baino gehiagokoa izango, hiru zerga ekitalditan zehar. Diru-kopuruan hori baino gutxiagoko dirulaguntzek ez dituzte ez merkataritza eraldatzen ez lehia baldintzak desitxuratzen; hori dela eta, ez dira Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikulua aplikazio eremuan sartzen.

Dirulaguntzaren onuradunak dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fisikaletan jasotako minimis izaerako dirulaguntzen berri eman beharko du eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, betiere jasotako dirulaguntzek Erregelamenduak adierazitako gehieneko muga gainditzen ez dutela egiaztatzeko helburuarekin.

## HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu pertsonalen babeserako informazio klausula:

Arduraduna: Etxepare Euskal Institutua.

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko arte-galeriei dirulaguntzak ematea nazioarteko arte azoketan stand-en alokairuaren gastuei aurre egiteko.

Lege-oinarria: interes publikoaren mesedetan zein tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzean egindako zeregina betetzeko beharrezkoa suertatzen den tratamendua da (Dirulaguntzen Lege Orokorra eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

Jasotzaileak: Gaiaren gaineko eskumena duten Administrazioei jakinarazi ahal izango zaizkie datu pertsonalak.

Eskubideak: zeure datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea duzu; baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Informazio gehigarria: web helbide hauetan aurkitu ahal izango duzu datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehiago:

ARCO: [www.euskadi.eus/dbao/1032207](http://www.euskadi.eus/dbao/1032207)

Beste azokak: [www.euskadi.eus/dbao/1032208](http://www.euskadi.eus/dbao/1032208)

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen erabaki honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek EEIko Zuzendaritza Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion aretoan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2020ko apirilaren 24a.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,  
IRENE LARRAZA AIZPURUA.